

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 27koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, erakunde horren kontratazio-mahaiaren osaketa argitara emateko dena.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia sortu zen. Agindu horren 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-mahai horren osaketa honakoa izango da: Batzordeburua: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna; mahai-kideak: a) kontratazio-organoaren ordezkari bat, organo horrek izendatua; b) Zuzenbidean lizentziatu bat, Agentziara atxikitakoa, lege-aholkularitzako eta mahaiko idazkariaren lanak egingo dituen; c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat; d) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariak eta Ondare eta Kontratazioko zuzendariak mahaikideak izendatu ondoren, bidezkoa da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaiaren osaketa argitara ematea. Beraz, hau

EBAZTEN DUT

Argitara ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaiaren osaketa.

Batzordeburua: Blanca Pérez Jiménez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

Batzordekideak:

Amaia Etxebarri Saiz Agentziaren zerbitzura dagoen Administrazio Orokorreko teknikaria; horren ordezkari izaskun Astondoa Sarria izango da.

Fernando Martínez de Zuazo Letamendi jauna Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari izango da.

Jon Salazar Izaguirre Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari izango da.

Ana Isabel Rojo González, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aholkulari juridikoa, zuzenbidean lizentziatu kide gisa, lege-aholkularitzako eta mahaiko idazkariaren lanak egingo ditu; horren ordezkari Maria Cristina Rico Fernández izango da.

gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko apirilaren 27a.

**e**

**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIako ZUZENDARIA